

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK: EZAGUTU ETA EUTSI



IRAKASLEAREN TZAKO OHARRAK

1. SARRERA

Eskuartearen duzun unitate didaktiko honen helburu nagusiak honakoak dira:

- alde batetik, euskal hizkuntz komunitatea osatzen dugunez, ikasleak ohartaraztea dauzkaten hizkuntz eskubideez;
- eta bestetik, gaur egun pairatzen ditugun hizkuntz eskubideen urraketak salatzekeo tresna bat eskaintzea: **EUSKARAREN TELEFONOA**.

Helburu hauek lortu ahal izateko, unitate didaktikoa bost ataletan banatuta dago:

- 1) Lehenengo atalaren helburua da munduko **hizkuntz aniztasunaz** eta aniztasun hori deuseztatzen ari den **prozesu globalizatzeaz** ohartaraztea.
- 2) Munduko hizkuntzen egoerari begirada azkar bat eman ondoren, hizkuntza guztiei dagozkien **eskubideak** jorratzen dira. Horretarako, gaur egun munduan eta Europan indarrean dauden lege eta printzipioen zertzelada nagusiak landuko dituzu.
- 3) Hirugarren atalaren helburua da jadanik barneratutako eskubide horiek **Euskal Herriko legeek** aitortzen dituzten ikustea.
- 4) Gero, Euskal Herrian euskararen eskubideen defentsan ari den Hizkuntz Eskubideen **Behatokia** aurkezten da: erakunde hau zer den eta zer lan ildo dituen ezagutzeko du helburu laugarren atal honek.
- 5) Azkenik, Behatokiak hizkuntz eskubideen urraketak salatzekeo duen tresna eraginkorra aurkezten da: **EUSKARAREN TELEFONOA**. Berau erabiltzekeo du helburu azken atal honek.

Bestalde, ikastunitatearen izaerari dagokionez, ikasleek bizi dituzten **egoera errealak** hartzen ditu oinarritzat eta edukiak **modu didaktiko eta mailakatuan** lantzen dira; gainera, **ikasleen aurrezagutzetarik** abiatzen da eta euren **inplikazioa lortzeko** estrategiak lantzen dira.

Atal bakoitzak honako egitura jarraitzen du:

- Hasieran landuko diren helburuen berri ematen da (*HELBURUAK*) eta bukaeran ikasitakoa gogorarazten da *ORAIN BADA KIZU* izeneko arloan.
- Bi atal hauen artean, ikasi beharreko edukiak ariketa eta teoria bitartez (*JAKIN/BA AL ZENEKIEN...*) lantzen dira. Ariketa bakoitzaren izenburuan ariketaren funtsa adierazten da; hau da, *AURKITU*, *HAUSNARTU* izenburuek adierazten dute ariketan zer egin behar duten. Laburbilduz, hauxe da atal bakoitzak duen egitura:

- *HELBURUAK*
- *ARIKETAK: HAUSNARTU, ENTZUN...*
- *EDUKIAK: JAKIN/BA AL ZENEKIEN...*
- *ORAIN BADA KIZU*

Honez gain, atal bakoitzaren amaieran *GEHIAGO JAKITEKO...* izeneko atal bat dago: atal honen bitartez irakasleak aukerako informazio osagarria eta ariketa gehiago izango ditu klasean lantzeko. Zeuri ere bururatu ahal zaizkizu ariketa gehiago.

Unitate didaktiko honetan aipatzen diren dokumentu gehien-gehienak

<http://www.behatokia.org>

helbidean daude eskuragai eta bertatik har ditzakezu beharrezko zaizkizunak.

Bukatzeko, hauxe da *Irakaslearentzako oharra* izeneko liburuxka honetako egitura:

- 1) Momentu honetan irakurtzen ari zaren sarrera
- 2) Helburuak eta edukiak: unitate didaktiko honen bitartez atalez atal lantzen diren helburuak eta edukiak (prozedurazkoak, kontzeptualak eta jarrerazkoak).
- 3) Azkenik, ikaslearen liburuko ariketen erantzunak ageri dira.

2. HELBURUAK ETA EDUKIAK

<i>HELBURUAK</i>	EDUKIAK		
	KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
Sarrera			
Munduko eta estatuetako hizkuntz aniztasuna ezagutzea	Munduko hizkuntzak Hizkuntz aniztasuna	Dokumentuak irakurri Hizkuntzak identifikatu eta kokatu	Hizkuntzak ezagutzea eta aberastasun gisa ulertzea, baloratzea, sentitzea, bizitzea
Hizkuntz komunitate kontzeptua ezagutzea	Hizkuntz komunitatea	Dokumentuen inguruko hausnarketa egin	
Hizkuntz komunitate kontzeptua estatu kontzeptuarengandik bereizten jakitea.	Hizkuntz komunitatea eta estatu kontzeptuak	Dokumentuak bilatu Egoerak konparatu Kontzeptuak erabili errealitatea aztertzeko Kontzeptuak konparatu	Ukipenezko egoeran dauden hizkuntzen aurreiritziak alde batera uztea.
Munduko hizkuntz aniztasuna hizkuntza gutxi batzuetara murrizten ari den egungo joera globalizatzaileaz ohartzea.			
Zer dira hizkuntz eskubideak?			
Hizkuntz eskubideak zer diren jakitea.	Hizkuntz eskubideak	Hizkuntz eskubideak defenditzen dituzten legeak irakurri eta konparatu	Euskara erabiltzearen aldeko jarrera aktiboa lantzea.
Munduko eta Europako deklarazioetan hizkuntz komunitate guztiok hizkuntz eskubide berberak ditugula jakitea.	Giza eskubideak	Egoera errealen inguruko hausnarketa egin eta datuak bildu	Norberaren eta besteen ekoizpenak baloratzea
Hizkuntz eskubideei dagokienez, hizkuntza guztiak berdinak direla jakitea.			
Bartzelonako Deklarazio Unibertsalaren printzipio/eskubide nagusiak ezagutzea		Dokumentuak irakurri Informazioa identifikatu	
Hizkuntz eskubideak gure inguruan errespetatzen diren edo ez ikusteko gaitasuna izatea.			

HELBURUAK	KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
Euskal Herriko legeak aitortzen dizkigu hizkuntz eskubideak?			
Euskarari dagokionez, Euskal Herrian indarrean dagoen legeria ezagutzea.	Euskal Herriko hizkuntzei buruzko legeak	Informazioa identifikatu Datu bildu eta hausnartu Errealitateari buruz hausnartu	Norberaren eskubideen kontzientzia izan eta defendatzea Inoren tokian jartzea eta bere neurri justuan ebaluatzea. Nork bere iritziak errespetuz azaltzea Besteen iritziak errespetuz entzun eta neurrian baloratzea
Euskarak Euskal Herriko lurralde guztietan eskubide berak dituela jakitea nahiz eta legeak berdin ez babestu.			
Legeak euskaldunontzat diskriminazioa dakarrela jakitea: guztiontzat berdina ez dela ohartzea			
Hizkuntz Eskubideen Behatokia			
Hizkuntz Eskubideen Behatokia ezagutzea.	Hizkuntz Eskubideen Behatokia	Prensa irakurri eta hausnartu Informazioa irakurri	Erabiltzaile gisa interesa izatea
“902. 194. 332” www.euskararentelefonoa.com			
Hizkuntz eskubideen urraketak identifikatzea.		Web orriaren edukiak aztertu	Eskubideen kontzientzia izatea eta Behatokia erabiltzea haien defentsarako. Erabiltzaile gisa interesa izatea
Hizkuntz eskubideen urraketak euskararen telefonoaren bitartez bideratzea			

1.3. Frantziar Errepublikan hitz egiten diren hizkuntzak: katalana, euskara, bretoia, okzitania, alsaziera, flandesera, frantsesa.

- galegoa: Galizian, Asturiasen, Gaztela-Leonen eta Extremaduran.
- katalana: Andorran, Katalunian, Roselló, Valentzian, Balear Uharteetan eta Sardinian (Italia) .
- euskara: Euskal Herrian
- gaelikoa: Eskozian
- bretoia: Britainian
- korsikera: Korsikan
- suomiera: Finlandian
- kroaziera: Kroazian
- serbiera: erbian

1.4. Non hitz egiten dira portugesa eta frantsesa?

Portugesa: Portugal, Brasil, Madeira eta Azoreetan. Halaber, Afrika eta Asiako garai bateko kolonietan (Zeilan, Java, Goa, Mozambike, Angola, Ginea Bissau, Sao Tome)

Frantsesa: Belgika, Suitza, Frantzia eta Afrika eta Ameriketako zituzten zenbait kolonietan; esate baterako, Aljerian.

2. Argibideetan agertzen diren hizkuntzen laburduren erantzunak:

ERANTZUNAK	E: gaztelania P: portugesa UK: ingelesa I: italiara D: alemana F: frantsesa NL: nederlandera SF: suomiera S: suediera DK: daniera	GR: grekoa N: norvegiera PL: poloniera PYCCKNN: errusiera UA: ukrainera CZ: txekiera BG: bulgaria H: hungaria HR: kroaziera TR: turkiera	SK: eslovakiera SLO: esloveniera RO: errumaniera MK: mazedoniera MD: moldaviera YU: serbiera LV: letoniera LT: lituaniera EST: estoniera ___: arabiera
-------------------	--	---	---

3. ZER DIRA HIZKUNTZ ESKUBIDEAK?

2. ariketaren erantzunak, hizkuntz eskubideak urratzen al dira?

1. egoera: HIZKUNTZ ESKUBIDEA URRATZEN DA; izan ere, alor publikoko jarduera guztiak gure hizkuntzan egiteko eskubidea daukagu.
2. egoera: HIZKUNTZ ESKUBIDEA URRATZEN DA; izan ere, hezkuntza gure hizkuntzan jasotzeko eskubidea daukagu
3. egoera: EZ DA URRATZEN HIZKUNTZ ESKUBIDERIK; izan ere, alor inprimakiak eta ahozko zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea bermatu da.
4. egoera: HIZKUNTZ ESKUBIDEA URRATZEN DA; alor publikoko jarduera guztiak gure hizkuntzan egiteko eskubidea daukagu.
5. egoera: HIZKUNTZ ESKUBIDEA URRATZEN DA; alor publikoko jarduera guztiak gure hizkuntzan egiteko eskubidea daukagu.
6. egoera: HIZKUNTZ ESKUBIDEA URRATZEN DA; alor publikoko jarduera guztiak gure hizkuntzan egiteko eskubidea daukagu.
7. egoera: HIZKUNTZ ESKUBIDEA URRATZEN DA; alor publikoko jarduera guztiak gure hizkuntzan egiteko eskubidea daukagu.
8. egoera: HIZKUNTZ ESKUBIDEA URRATZEN DA; izan ere, zentzuzkoa denez, edozein hizkuntzatan zuzen eta egoki idatzi behar dira idatzi beharrekoak.

4. EUSKAL HERRIKO LEGEEK AITORTZEN DIZKIGUTE HIZKUNTZ ESKUBIDEAK?

1.

Iparraldean:

Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherean: ez, legeak ez baitio ofizialtasunik aitortzen euskarari.

Hegoaldean:

EAEn: Bai, legearen arabera, euskara, gaztelaniarekin batera, ofiziala delako. Administrazioak, ahoz zein idatziz, biztanleak hautatzen duen hizkuntzan erantzuteko betebeharra duelako.

Trebiñun eta Turziozen: Ez, legeak ez baitio ofizialtasunik aitortzen euskarari.

Nafarroako “eremu euskaldunean”: bai, administrazio publikoak herritarrak hautatutako hizkuntzan harrera egiteko betebeharra du.

Nafarroako “eremu mistoan”: bai, herritarrak administrazioari euskaraz zuzentzeko eskubidea du baina administrazioak ez du euskaraz erantzuteko betebeharririk.

Nafarroako “eremu ez-euskaldunean”: bai, herritarrak administrazioari euskaraz zuzentzeko eskubidea du baina, hala nahi izanez gero, administrazioak herritarrari gaztelaniazko itzulpena eska diezaioke. Hortaz eskubidea aitortu arren, ez dago bermatuta, ez eta legean ere.

Iparraldean:

Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherean: ez, legeak ez baitio ofizialtasunik aitortzen euskarari.

Hegoaldean:

EAEn: Bai, legearen arabera, euskara, gaztelaniarekin batera, ofiziala delako. Ikasketak euskaraz egin daitezkeela zehazten du legeak.

Trebiñun eta Turtziozen: Ez.

Nafarroako “eremu euskaldunean”: Bai, ikasle guztiak aukeratutako hizkuntza ofizialean hartu ahal izango dituzte eskolak.

Nafarroako “eremu mistoan”: Bai, ikastetxeetan, hala eskatzen dutenentzako euskarazko irakaskuntza ereduak sortuko direla zehazten du legeak.

Nafarroako “eremu ez-euskaldunean”: ez.

Iparaldean:

Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherean: ez, legeak ez baitio ofizialtasunik aitortzen euskarari.

Hegoaldean:

EAEn: Bai, legearen arabera, euskara, gaztelaniarekin batera, ofiziala delako. Ikasketak euskaraz egin daitezkeela zehazten du legeak.

Trebiñun eta Turtziozen: Ez.

Nafarroako “eremu euskaldunean”: Bai, ikasle guztiak aukeratutako hizkuntza ofizialean hartu ahal izango dituzte eskolak.

Nafarroako “eremu mistoan”: Bai, ikastetxeetan, hala eskatzen dutenentzako euskarazko irakaskuntza ereduak sortuko direla zehazten du legeak.

Nafarroako “eremu ez-euskaldunean”: Ez.

Iparaldean:

Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherean: ez

Hegoaldean:

EAEn: bai.

Nafarroako “eremu euskaldunean”: bai.

Nafarroako “eremu mistoan”: bai.

Nafarroako “eremu ez-euskaldunean”: bai.

Iparaldean:

Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherean: Ez, legeak ez baitio ofizialtasunik aitortzen euskarari.

Hegoaldean:

Ez derrigorrezkoa baita gaztelaniaz ere egotea.

5. HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA

1. Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren izaerari buruzko galderak:

Zer da Hizkuntz Eskubideen Behatokia?

Hizkuntz Eskubideen Behatokia Euskararen Gizarte Erakundeen [Kontseiluak](#) sustatu eta bideratu duen fundazioa da.

Behatokia Euskal Herriko herritarren hizkuntz eskubideez arduratzen da eta eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein pribatuan, bermatzera zuzentzen du bere jarduera.

Behatokiak neutralitatez eta Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua ez den beste edozein erakunde publiko zein pribaturen menpekotasunik gabe betetzen du bere lana.

Zer egiten du fundazio honek?

Euskal Herrian, hizkuntza dela eta, ez dago herritar guztientzat aukera berdintasunik. Euskarak, Euskal Herriko berezko hizkuntzak, ez du estatus ofizialik Euskal Herri osoan eta euskal hiztunek egunero dituzte ukatuak beren hizkuntz eskubideak. Euskal hiztunen hizkuntz eskubideak babestu eta defendatu ez ezik, urratzen direnean [salatu](#) ere egiten ditu. Euskal Herrian euskaraz mintzatzeko, administrazioari zuzendu eta administraziotik zerbitzuak hartzeko (osasuna, hezkuntza, justizia, informazioa zein beste edozein zerbitzu), bai eta orokorrean gizarteak eskaintzen dituen aukerez euskaraz baliatzeko euskal hiztunek dituzten aukerak bermatzea du xede.

Non du bere egoitza nagusia?

Marcelo Zelaieta etorbidea 75. AA3 eraikina, 28. bulegoa.
31014 Iruñea (Nafarroa Garaia)

Zein da bere posta elektronikoa?

behatokia@behatokia.org
Telefona.: 948 146 172
Faxa: 948 123 743

2.

- Nazioarte mailan egoeraren berri eman: 5
- Datuak bildu : 1
- Epaitegietara jo: 4
- Kexak bideratu: 2
- Txostenak egin: 3

6. 902.194.332 www.euskararentelefonia.com

- (1) KEXA EGITEKO
- (2) ARGIBIDEAK EDO AHOLKUAK ESKATZEKO,
- (3) JOKABIDE EREDUGARRIA TXALOTZEKO,

Irakaslearentzako oharra: ariketa honekin batera kexak idazten ikas dezakete ikasleek